

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0119</p>	<p>Telelaguntza zerbitzua</p>
---	----------------------	--------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Erabiltzailearen etxebizitzako telefono lineara konekatatutako gailu xumea da, eta egunean 24 orduz etengabeko arreta izateko aukera eskaintzen du, urteko egun guztietan. Hau eskaintzen du:

- Telefono bidezko berehalako laguntza hainbat motatako deien aurrean: angustia, bakardadea, erorketak, etab.
- Baliabideak mugiaraztea osasun, etxebizitza edo gizarte alorreko larrialdi egoeren aurrean.
- Etengabeko jarraipena arreta zentrotik, aldizkako telefono deien bitartez.
- Agenda, erabiltzaileari botikei, kudeaketei... buruzko datu garrantzitsuak gogorarazteko.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatutako edozeinek edo bere lege ordezkariak.

Interesatutako pertsonak bete beharrekoak:

- Mendekotasun edo mendekotasunerako arrisku egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak.
- Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak.
- Ezintasun fisikoa, sensoriala edo intelektualala edo buruko gaixotasuna duten eta aitortutako mendekotasun egoeran dauden pertsonak.
- Aipatutako balizkoetako batean ere ez egon arren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan emandako txostenean telelaguntza zerbitzuaren bitartez bidera daitekeen arreta behar duten pertsonak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E012 Teleasistentziarako eskabidea \(Gizartelan\)](#)
- [E013 Teleasistentziarako osasun fitxa \(Gizartelan\)](#)
- [E105 Dokumentu zerrenda telelaguntza zerbitzua eskatzeko](#)
- Eskatzailearen NAN
- Talde erroldatze ziurtagiria (Udalak ofizioz emango du)
- Mendekotasunaren ebaluazioaren ebazpena, hala dagokionean
- Gizarte-txostena, hala dagokionean.
- Bankuko libretaren fotokopia (kontu korrante zenbakiarena)

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Posta arrunta:

- Udaletxeko posta arrunta
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

4 Euro hilean. Agindua, [2011ko ekainaren 30ekoa](#)

(diru-sarreraren arabera, doakoa ere izan daiteke)

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [144/2011 Dekretua, ekainaren 28koa, telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzkoa](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
2. Erregistratu eta interesatuari kopia eman.
3. Gizarte Langilarekin hitzordua, gizarte-txostena beharrezkoa bada.
4. Espedientea Eusko Jaurlaritzara bidali, ebazpenerako.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Eusko Jaurlaritza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK

Pertsona titularraren etxebizitzaren aldaketa kasuan, Telelaguntza jakin arazi telelaguntza@euskadi.eus helbide elelektronikoaren bidez, errolda familiarraren ziurtagiria bidaliz.

Titularraren heriotza kasuan, bizikidetza unitateko kideren batek zerbitzuarekin jarraitu nahiko balu, hitzordua Gizarte Langilearekin.